

## Aurkezpena: *Euskalingua* – 6

Irakurle,

*Euskalinguaren* 6. zenbaki honetan ohiko arloei dagokien zazpi artikulua irakurtzeko aukera izango duzu.

Batuketaren arloan, Gaminde eta bestek Ereñon baturiko kantuak (lo kantuak, olgatzeko kantuak, jaieguneko kantuak eta errezitatuak, besteak beste) dakartzate, batzuetan partitura eta guzti. Dakizueenez, *Euskalinguan* leku berezia egin gura diogu Mendebaldeko ondarearen batuketari.

Beste korpus aldetiko behar bat aurkituko duzu zenbaki honetan: Mtz. de la Cuadraren Nabarnizko hiztegiaren L, M eta N-z hasitako berbak ditugu, hiztegi mardularen bosgarren atala, hain zuzen. Aurreko ataletan bezala, lexikoa batu ez ezik fraseologia eta adibide erabilerak ere eskaintzen ditu bertan.

Fonetika arloan, Gamindek “Aditz partizipioen jotaren ebakera zubereraz” izeneko artikuluan Zuberoako hamar herrietan jota zelan ebakitzen den aztertu ostean frikari zein afrikaria izan daitekeela erakusten digu eta Bizkaiko herri batzuetako datuekin konparaketa egiten du.

Aplikazioaren eremuan, Karmele Perez Urraza “Xabiartxo eta Sabin, eskola liburutako ikasle eredugarri” artikuluan eskola liburu biren edukiaren azterketa ideologikoa egiten du –dakartzaten estereotipoak eta imaginariu politikoa, esate baterako– modu kuantitatibo zein kualitatiboan. Xabiartxo eta Sabin euskalduna testu-liburuetakoa pertsonaiak biak euskal kulturaren balioak zabaltzeko erabili badira ere, liburu batean eta bestean modu diferentean egin dela erakusten digu Perez Urraza irakasleak.

Telleriaren “Teatro-hizkera euskaldun barri bizkaitar baten begiradatik” 2004ko maiatzean Mendebalde egin zituen VIII jardunaldietan aurkeztutako txostena da. Orduan jardunaldietako liburuan ezin izan zen argitaratu eta irakurlearentzat interesgarria izango delakoan *Euskalinguan* dakargu. Euskara erabiltzaile eta antzerki-idazlea den Telleriak gure hizkuntzaren erabileraz zenbait ohar ematen ditu.

Bilbao eta besteren “Basque Textbooks in the 20th Century: the Contents and the Context” artikuluan eskola testu-liburuaren garapena aztertzen da, XIX. mendetik gaur egun arte testu-liburuak bai itxuran –ikonografiaren erabileran, esate baterako– bai edukian zelan aldatu diren, hain zuzen. Aztertutako testu-liburuetan XIX. mendetik ikonografia nabarmen ugari da, ulergarritasunaren mesederako autoreen iritzian. Testu-liburuon edukiari dagokionez, curriculumak zein testuingurutan ageri den aztertu dute, argitalpenaren hizkuntza eta argitalpen-lekua kontuan izanik.

Azkenik, “HIZKING21: Gaitasun linguistikoak dituzten sistemetan hizkuntza baliabide eta tresnak barneratzen” lanean Hernaez eta bestek Hizking21 proiektuaren berri ematen digute. Euskal hizkuntzaren prozesamenduan dauden baliabideak aprobetxatu eta elkartzuz hizkuntz industriarentzat erabilgarri izan daitezkeen produktu ezberdinen arteko egokitzapena egitea du helburu Hizking21 proiektuak.

Lanok gustura irakurriko dituzuna seguru gaude.

*Esti Amorrortu, editorea*